

VIGNEMALE ODOLEZ

Urteak igande eta jai egunak eskaini hala, mendizale asko goietara hurbiltzen da, bake eta lasaitasun apur bat bila. Presa, zarata eta diruaren munduan egunak lanean igaro ondoren, mendien deia sentitzen du bere baitan. Han, goian, gizonaren zain, mendia. Bion artean sortu ohi da «mendizaletasuna» hitzez bataiatu duguna.

Mendien dei honi jarraituz, ekainaren 28an Vignemalen ikusten ditugu 6 euskal mendizale. Zerbait egin nahirik-aurreko egunean, Pique Longuen gauzak ez bait ziren ondo suertatu. Gaube izeneko haitzertza hautatu zuten eskaladarako. Sei mendizaleok Des Oulettes aterpetik irtenda, izen berbera darmanan mendixkara igo ziren. Hemen, ezkerretara harturik, Pique Longue (3.298 m.) gailurrera eramane zituen haitzertza hasten da.

Haitzertzari atxiki aurrez, sei lagunok bi soka-taldetan banatu ziren. Lehendabizikoan Joxe Luis Orbegozo (Iherra), Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos zihoazten. Bigarrenean, Mendizabal (Errexil), Markos Alustiza eta Martin Garcia.

Eskalada guztian atzetik zihoan bigarren soka-taldeko Martin, argazkiak eta fil metarako zenbait gauza hartzen ari zen. Inongo kezkarik somatzeke eta lasai, soka-bideak oso ondo egiten ari ziren besteak. Tximinia bat hobeto filmatzeko asmoz, bigarren soka-taldeak aurea hartu zuen. Zerbait gorago, Pique Longue gailurra hurbil zegoela ikusirik (20 metro inguru geldituko ziren haitzertza gainditzeko), bilgune bat egin zuten, beste soka-taldearen zain egoteko. Ez zuten denbora asko egin. Iherra sokaurrekoa bertan zen eta besteak, Sebastian eta Fernando harkaitzak tapatzen zituen. Oraindik ez ziren ikusten. Berehala, inoren ustekabea... zarata haundiz, harkaitzak higitu eta, beraiekin bat eginik, hiru mendizaleen gorputzak Colt de la Huon-eko edur-metara amildu ziren. Zazpiehun metroko jauziketa.

Goian zegoen taldea, ixtripua ikusi ondoren, Pique Longuera igo zen laguntza bila. Gailurrean arkitzen ziren bi katalanei bérri tristeza jakinerazi ondoren, hauek Bayssellanceko aterpera jaitsi ziren. Hemen, irratia bide, S.O.S.-eko helikoteroari dei egin zioten. Baita hau agudo agertu ere.

Hauek dira gertaerak eta ez beste. Han bertan egon ziren bi mendi-goizaleen ahotik jakin ahal izan dugu hemen esaten eta idazten duguna. Informazioa «Errexil» eta Martin Garciari zor diegu.

Ixtripua nola eta zergatik gertatu zen? Hau da askoren galdera. Baita gurea ere. Bainan, galderak ez du erantzun oso osorik izango. Han hurbil zirenak ére ez dakite eta. Beraz, hor zehar zabaldu diren zenbait sasi-arrazoi isildu beharrean arkitzen gera: ekaitzak galdu zituela, liltze bat irten zitzauela, e. a. Zenbaitek zera esaten du: lotzeke zihoaztela. Ez da egia. Artean loturik zihoazten. Beste askok hau esaten du: Frantziako lurretan erori zirela. Gezurra da. Han ibili den edonork daki edo jakin behar luke behintzat, Gaubeko haitzertzak muga berezi bat egiten duela Frantzia eta Espainiako estatuen artean. Guk Espainiako lurrean erori zirela aitortu behar dugu.

Bai ixtripu egunean eta geroago ere, eskertzekoa izan da-bihotz bihotzez-Frantzian arkitu den laguntza. Txalogarria da baita helikoteroak eskaini zuen laguntza eta azkartasuna. Hitz gutxitan, frantzes haiek ukan duten jokaera.

Ixtripua nola gertatu zen agertu ondoren, ez dugu ezer esatekorik. Heriotza beti da latza gizakiontzat; are latzago gazte eta bizkor den barentzat. Bainan, hemen, hiru adiskideon eriotzari buruz hainbat gauza esan den une honetan, hau ohikatu nahi dugu: heriotzaren altzoa zabala da eta MENDIAN HILTZEKO ESKUBIDEA ESKATZEN DUGU. Beste-rik ez.

Agur Iherra, Fernando eta Sebastian. Egun haundira arte!

Resumen. — Vignemale ensangrentado.

Se relata en este artículo el accidente ocurrido a tres de nuestros compañeros, Fernando Terradillos era el Tesorero de la Federación Vasco-Navarra, en la arista de Gaube.

Un bloque desprendido en la última chimenea, arrojó la cordada al abismo, ante la mirada atónita de sus compañeros, ya en la cima.

Insiste en la localización del lugar del accidente, situado en la vertiente española, y se despide de ellos con un emotivo ¡Hasta el Gran Día!